

ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN ARAUDIA
“CAIXABANK PAYMENTS & CONSUMER, E.F.C. E.P., S.A.U.”

I. KAPITULUA

ATARIA

1. ARTIKULUA.- HELBURUA

1. Araudi honen bidez CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C. E.P., S.A.U. konpainiaren (aurrerantzean, **Sozietatea**) Administrazio-kontseilua onartzen da, Kontseilu horren jardueraren printzipioak erabakitzeke helburuz, baita bere antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko oinarritzko arauak eta bere kideen jokabide arauak ere, eta modu berean aplikatuko zaizkie bere organo delegatu eta barneko batzordeei ere, edota haien osatzen dituzten kideei.
2. Araudi honek Sozietatearen Estatutuetan Administrazio-kontseiluari aplikagarri zaizkion arauen erregimena garatzen eta osatzen du. Aplikagarri deiren legezko eta estatutuzko arauen arabera interpretatuko da.

II. KAPITULUA

KONTSEILUAREN FUNTZIOA

2. ARTIKULUA.- ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN FUNTZIOAK

1. Legeek edo Sozietatearen estatutuek Batzorde orokorraren eskumenerako gordetako gaitan izan ezik, Administrazio-kontseilua da Sozietatean erabakiak hartzen dituen organo gorena, edozein gairi buruzko akordioak hartzeko eskumena du, eta Sozietatea kudeatzeko eta ordezkatzeko ahalmen eta gaitasun handienak ditu.
2. Administrazio-kontseiluak gobernu-sistema korporatiboa definituko du Sozietatearen kudeaketa osasuntsu eta zuharra bermatzen duena, eta antolamenduan eta interes-gatazkak prebenitzeko funtzioak modu egokian partekatzen dituen, sistema hori nola aplikatzen den zainduz eta haren eraginkortasuna tarteka kontrolatu eta zainduz, eta behar den kasuetan, balizko alde horiek konpontzeko neurri egokiak hartuz.
3. Zehazki, eta Legez, Estatutuz edo Araudi honen bidez, Administrazio-kontseiluak osorik gordetzen dituen eskumenei kalterik egin gabe, Administrazio-kontseiluaren funtzio hauek ezin dira eskuordetu, eta Kontseilu osoak onartu beharko du, emandako ordezkartzek eta ahalmenek hirugarrenen aurrean dituzten ondorioei kalterik egin gabe:
 - (i) Bere antolamendua eta funtzionamendua eta, bereziki, bere Araudia onartu eta aldatzea.
 - (ii) Eratatuko Batzordeen eta organo delegatuen jardueraren funtzionamendu efektiboa gainbegiratzea.
 - (iii) Goi-zuzendaritzaren eta izendatutako zuzendaritzako kideen gainbegiratze efektiboa.

- (iv) Urteko kontuak egin eta Batzar orokorrean aurkeztea.
- (v) Legeak Administrazio-kontseiluari eskatutako edozein txosten mota egitea, txostenak tratatzen duen eragiketa eskuordetu ezin denean.
- (vi) Sozietateko Kontseilariak edo Kontseilari delegatuak izendatzea eta edo kargugabetzea, baita haien kontratuen baldintzak ezartzea ere.
- (vii) Administrazio-kontseiluaren edo bere kideetako baten mende dauden zuzendaritzako kideak izendatzea eta edo kargugabetzea, baita haien kontratuen oinarrizko baldintzak ezartzea ere, ordainsaria barne.
- (viii) Kontseilarien ordainsariari buruzko erabakiak, estatutu-esparruaren baitan eta, hala balegokio, Batzorde orokorrak onartutako ordainsari-politikaren baitan.
- (ix) Legean xedatzen denari jarraikiz, Kontseilarien leialtasun-eginbeharretik eratorritako betebeharrak baimentzea edo barkatzea.
- (x) Akziodunen batzar orokorra deitzea eta gai-zerrenda eta akordio-proposamenak egitea.
- (xi) Batzorde orokorraren Administrazio-kontseiluaren esku utzitako eskumenak, haiek berriro ere eskuordetzeko berariazko baimena ematen duenean izan ezik.
- (xii) Sozietatearen politika eta estrategia orokorrak erabakitzea eta, bereziki, ekintza propioei buruzko politika.
- (xiii) Gobernu-sistema korporatiboaren eraginkortasuna zaintzea, kontrolatzea eta tarteka ebaluatzea, eta hutsunerik balego, haiek konpontzeko neurri egokiak hartzea.
- (xiv) Sozietatea administratzeko eta kudeatzeko erantzukizuna, estrategia- eta negozio-plana onartzea eta zaintzea, baita estrategia- eta kudeaketa-helburuak, arrisku-estrategiak eta barne-gobernua ezartzea ere.
- (xv) Kontabilitateari eta finantzei buruzko informazio-sistemen osotasuna bermatzea, kontrol finantzarioa eta operatiboa eta aplikagarri den legedia betetzea barne.
- (xvi) Informazioa zabaltzeko prozesua eta kredituzko finantza-erakunde eta ordainketa-entitate baldintzatik eratorritako komunikazioak gainbegiratzea.
- (xvii) Informatzeko eta kontrolatzeko barne-sistemak gainbegiratzea.
- (xviii) Auditoretza-batzordeak aurrez txostena egin ostean, helburu berezia edo zerga-paradisutzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan helbideratutako entitateak sortzea edo partaidetzak erostea onartzea.
- (xix) Auditoretza-batzordeak aurrez txostena egin ostean, Sozietateak bere sozietate nagusiarekin edo Taldeko beste sozietate batzuekin interes-gatazka eduki ditzaketen egindako eragiketak onartzea, Araudi honen 29. artikuluan zehazten denari jarraikiz, eskumen hori legez Batzar nagusiari dagokion kasuetan izan ezik.

III. KAPITULUA KONTSEILUAREN OSAERA ETA EGITURA

I. ATALA ADMINISTRAZIO-KONTSEILUA

3. ARTIKULUA.- OSAERA

1. Administrazio-kontseiluaren osaera orokorrak finantza-erakundeak gobernatzeko behar adina ezagutza, eskumen eta esperientzia bildu behar ditu Sozietatearen jarduerak egoki ulertzeko, baita arrisku nagusiak ere eta Sozietatearen mesedetan Administrazio-kontseiluak erabakiak modu independente eta autonomoan hartzeko, aplikagarri den araudiak eskatutako egokitasun-baldintzak betez.
2. Era berean, Administrazio-kontseiluak aplikagarri den araudian zehaztutako bateraezintasun-erregimena betetzen dela zaindu beharko du.
3. Administrazio-kontseilua Batzar nagusiak erabakitako Kontseilari kopuruak eratuko du, Sozietatearen Estatutuetan ezarritako muga barruan.
4. Kontseiluak Kontseilari kopurua proposatuko ditu Batzar Nagusiari, eta Sozietatearen egoera aldagarrien arabera, behar den moduan ordezkatu eta organoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko egoki den kopuru bat izango da.
5. Kontseilari pertsona juridikoaren karguari dagozkion funtzioak modu iraunkorrean egiteko izendatutako pertsona fisikoak Kontseilariak zehaztutako lege-betebeharrak bildu beharko ditu, eta pertsona juridiko administratzailearekin betebeharrak beren mende egongo da eta solidarioki erantzun beharko du.

4. ARTIKULUA.- KONTSEILUAREN PRESIDENTEA

1. Administrazio-kontseiluaren Presidentea bere kideen artean aukeratuko da eta Legean, Sozietatearen estatutuetan eta Araudi honetan aurreikusitako edota Kontseiluak berak emandako gaitasunak izango ditu.
2. Presidentea da Administrazio-kontseiluak modu eraginkorrean funtzionatzen duela ziurtatzeko arduradun gorena, bere eskumenen garapena eta Batzordeen koordinazioa bultzatzen du bere funtzioak hobeto betetzeko eta, besteak beste, eskumen hauek izango ditu, bestela ezarri zaizkion ahalduntze eta eskuordetzeei kalterik egin gabe:
 - (i) Sozietatea instituzionalki ordeztea, Administrazio-kontseiluari arlo horretan esleitzen zaizkion funtzioei kalterik egin gabe.
 - (ii) Administrazio-kontseiluaren saioak deitzea, gai-zerrenda erabakitzea eta zuzentzea, eztabaidak eta deliberazioak gidatuz. Era berean, organo horren edozein akordio exekutatu ahal izango du, eskuordetze berezirik gabe.
 - (iii) Gai-zerrendako puntuei buruz deliberatu eta saioetan Kontseilariaren eztabaida eta partaidetza aktiboa bultzatzeko alde aurretik Kontseilariak behar adina informazioa jasotzen dutela zaintzea, bakoitzari bere iritzia izan dezan zainduz, akordioak hartzeko unean aurkakoak diren iritziak ere aintzat hartzen direla ziurtatuz. Era berean, gai estrategikoak lehentasunez tratatzen direla zainduko du.

- (iv) Kontseiluaren eta Batzordeen artean informazio-fluxu eraginkorra egoten laguntzea, baita Kontseiluaren baitan ere.
 - (v) Berdinketetan, kalitate-botoa izango du buru den Administrazio-kontseiluen saioetan.
 - (vi) Sozietatea ordezkatu du Sozietatearen estatutuen arabera, sektoreko erakunde korporatibo eta ordezkagarrien aurrean.
 - (vii) Akten, ziurtagirien eta Batzar nagusiaren, Administrazio-kontseiluaren eta, hala balegokio, buru den batzordeen akordioei buruzko gainerako dokumentuen oniritzia emango du, eta Sozietatearen izenean jardungo du organo arautzaileen aurrean akordioa exekutatzeko, beste organo batzuei egindako esleipenei kalterik egin gabe.
 - (viii) Sozietatearen sinadura ofiziala ematea, eta beraz, Sozietatearen izenean, legez edo estatutuen arabera beharrezkoak diren akordioak, kontratuak, hitzarmenak edo beste tresna juridiko batzuk sinatzea administrazio publikoekin eta beste erakunde batzuekin.
 - (ix) Indarrean diren lege-xedapenak betetzen direla zaintzea, baita Sozietatearen estatutueta eta Araudietako aginduak eta buru den kide anitzeko organoen akordioak ere.
 - (x) Sozietatea formalki ordezkatzeko, Espainiako edo atzerriko, agintarien, entitateen eta beste erakunde batzuen aurrean. Ordezkaritza hori Kontseiluko gainerako kideen esku, Kontseilari delegatuaren esku edo Sozietatearen zuzendaritza-taldeko kide baten esku utzi ahal izango du.
3. Kontseiluak bere kideen artean Presidente aukeratu du, eta Presidenteorde bat edo gehiago aukera ditzake, Batzar nagusiak zuzenean izendatzen ez baditu. Gaixotasunagatik edo beste arrazoiren batengatik Presidente kanpoan geratzen bada, lehen Presidenteordeak ordeztu du automatikoki eta, presidenteorde gehiago izanez gero, ordenaren arabera izendatu dira, eta halakorik ez balego, Kontseiluak bereak izendatutako Kontseilariak.

5. ARTIKULUA.- KONTSEILUAREN IDAZKARIA

1. Administrazio-kontseiluak Idazkari bat aukeratu du, eta bere kideetako bat izenda dezake edo Kontseiluko kide ez den pertsona bat ere bai, karguari dagozkion funtzioak egiteko gaitasuna izanez gero.

Administrazio-kontseiluaren idazkaria Kontseilaria ez bada, hitza izango du baina ez du botorik izango.

2. Administrazio-kontseiluaren Idazkariak Presidenteari lagundu beharko dio bere lanak egiten eta, bereziki, (i) Kontseiluaren deialdia izapidetzen, Presidentearen erabakia exekutatu, (ii) Administrazio-kontseiluaren dokumentazioa gordetzea, saioen garapena akten liburuan idatzita jasotzea eta bertako edukiaren eta hartutako erabakien fede ematea, (iii) Administrazio-kontseiluaren jarduerak aplikagarri den araudira egokitzen direla eta Sozietatearen estatutuen eta gainerako barne-araudien arabera direla zaintzea, eta (iv) Presidenteari laguntzea, Kontseilariak behar adina denborarekin bere funtzioa betetzeko informazioa jaso dezaten eta informazio hori formatu egokian bidaltzea.

3. Administrazio-kontseiluak Idazkariorde bat izenda dezake, eta ez du zertan Kontseilari izan behar, Administrazio-kontseiluaren Idazkariari laguntzeko edo hura ordeztzeko Idazkaria falta denean, hutsik, gabezia edo funtzio hori egitea ezin zaionean, eta halakorik faltako balitz, Administrazio-kontseiluko kide gaztenak hartuko du kargua.

6. ARTIKULUA.- AHALMENAK DELEGATZEA. ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN BATZORDEAK

1. Sozietatearen estatutuetan ezarritakoari jarraikiz, Presidenteari edo beste edozein Kontseilariri pertsonalki delegatu zaizkion eskumenei kalterik egin gabe, Administrazio-kontseiluak Batzorde exekutibo bat eratu ahal izango du, eta Kontseiluak berriaz eman dizkion eskumenekin izendatuko da eta organo horrek zehaztutako moduan eta baldintzen arabera jardungo du.
2. Administrazio-kontseiluak Auditoretza-batzorde bat, Arriskuen batzorde bat, Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzorde bat eta Berrikuntza, teknologia eta eraldaketa digitalaren batzorde bat eratu dituzte Legeak, Sozietatearen estatutuek eta Araudi honek emandako eskumenekin. Edonola ere, Administrazio-kontseilua Batzordeen osaera berbera izan ez dadin saiaturik da, eta noizean behin Presidenteak eta bere kideak txandakatzea hausnartuko du.
3. Legeak, Estatutuek eta Araudi honek kontrarik esan ezean, Batzordeek bere funtzionamendua aratu ahal izango dute. Aurreikusi ez denean, bereziki, Sozietatearen estatutuetan eta Araudi honetan zehaztutako funtzionamendu-arauak aplikatuko dira Kontseiluari dagokionez, dagokion Batzordearen izaerarekin eta funtzioarekin bateragarriak diren heinean.
4. Era berean, Kontseiluak kontsultatzeko edo aholkuak emateko funtzioak dituen beste Batzorde batzuk era ditzake, salbuespenez erabakitze gaitasunen bat esleitzeari kalterik egin gabe.

II. ATALA BATZORDE EXEKUTIBOA

7. ARTIKULUA.- OSAERA, FUNTZIOAK ETA FUNTZIONAMENDUA

1. Administrazio-kontseiluak bere baitan Batzorde exekutibo bat izenda dezake, eta bertako kide izango dira Presidenteak eta, baldin balego, Kontseilari delegatua.
2. Administrazio-kontseiluak Batzorde exekutibo bat sortuko balu, bere osaera zehaztu eta bere funtzionamendu-arauak erabakiko ditu. Batzorde horrek gutxienez hiru Kontseilari izango ditu, eta gehienez, bederatzi.
3. Batzorde horren eskumenak Kontseiluak, kasu bakoitzean, delegatutakoak izango dira Legean, Sozietatearen estatutuetan eta Araudi honetan aurreikusitako mugekin.
4. Batzorde exekutiboa Presidenteak edo hura falta denean, hutsik, absente edo ezinezkoa duenean, haren ordezkariak deitzen duen adina aldiz bilduko da, eta baliozko moduan eratu dela ulertuko da bere bileretara, presente edo ordezkaturik, kideen gehiengoak joaten denean.
5. Batzorde exekutiboko kideen izendapena eta Kontseiluaren eskumenei ordezkariak iraukorrik Administrazio-kontseiluko kideen bi herenen aldeko botoa beharko dute.
6. Batzorde exekutiboak Kontseiluari jakinarazi beharko dizkio saioetan jorratu dituen gai nagusiak eta hartutako erabakiak.

7. Batzorde exekutiboaren Presidentea eta Idazkari Administrazio-kontseiluak ere izango dira.
8. Batzorde exekutiboaren akordioak bilduta presente edo ordezkatura dauden kideen gehienoz hartuko dira, eta baliozkoak eta lotesleak izango dira Administrazio-kontseiluaren osoko bilkurak berretsi beharrik gabe.

III. ATALA AUDITORETZA-BATZORDEA

8. ARTIKULUA.- OSAERA, FUNTZIOAK ETA FUNTZIONAMENDUA

1. Auditoretza-batzordea Kontseilari ez-exekutiboz osatuta dago, Administrazio-kontseiluak erabakitako kopuruan, gutxienez hiru (3) eta gehienez (5) kide. Auditoretza-batzordeko kide gehienak independenteak izango dira eta kideetako batek (1) kontabilitate- edo auditoretza-ezagutza eta -esperientzia edo biak edukiko ditu, nahiz eta Auditoretza-batzordean kide guztiek kontabilitateari, auditoretzari, finantzen, barne-kontrolaren, arrisku-kudeaketan eta informazioaren teknologietan ezagutzak eta esperientzia dituztelako izendatzen saiatuko den.
2. Auditoretza-batzordeak bere Kontseilari independenteen artean izendatuko du Presidentea. Presidentean lau (4) urtez behin ordeztuko da, eta berriro aukeratu ahal izango da kargua utzi urtebete (1) igaro eta gero. Auditoretza-batzordearen Presidenteak bozeramaile gisa jardungo du Administrazio-kontseiluaren bileretan, eta hala balegokio, Sozietatearen akziodunen Batzar nagusiaren bileretan ere. Era berean, Idazkari bat izendatuko du, eta Idazkariorde bat ere izenda dezake, eta biek ez dute zertan kide izan behar. Izendapen horiek egiten ez badira, Kontseilukoek beteko dituzte kargu horiek.
3. Auditoretza-batzordeak bere funtzioak garatu eta gauzatzeko unean, kontuan izango ditu 2017ko ekainaren 27ko Balioen Merkaturako Batzorde Nazionalaren auditoretza-batzordeei buruzko 3/2017 Gida Teknikoan xedatzen diren printzipioak eta irizpideak hartuko dira kontuan, printzipio eta irizpide horiek Sozietatearen egoera eta ezaugarri berezietara egokitzeari kalterik egin gabe. Administrazio-kontseiluak une oro esle dakizkiokeen beste edozein egitekori kalterik egin gabe, Auditoretza-batzordeak oinarritzko funtzio hauek gauzatu ditu:

Finantza-informazioa gainbegiratzearekin lotuta

- a) Akziodunen batzar nagusian bere eskumeneko gaitan proposatzen diren gaien berri ematea eta, bereziki, auditoretzaren emaitzari buruz, finantza-informazioaren osotasunean nola lagundu duen eta Auditoretza-batzordeak prozesu horretan bete duen funtzioa azalduz.
- b) Derrigorrezko finantza-informazioa egiteko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea
- c) Administrazio-kontseiluari, aldez aurretik, finantza-informazioaren berri ematea, baita argitara eman behar den Sozietatearekin lotutako informazio ez-finantzarioaren berri ere.

Barne-kontrola eta barne-auditoretzarekin lotuta

- d) Sozietatearen barne-kontrolaren eta barne-auditoretzaren eraginkortasuna gainbegiratzea, baita kontuen auditorearekin auditoretzan hautemandako barneko kontrol-sistemaren ahulguneei buru eztabaidatzea ere, eta hori guztia bere independentzia kaltetu gabe, sistemaren konfiantza- eta fidagarritasun-mailari buruzko ondorioak emanez Xede horietarako, eta hala balegokio, gomendioak edo proposamenak aurkez diezazkioke Administrazio-kontseiluari eta jarraipena egiteko dagokion epea.
- e) Auditoretzaren urteko planaren garapenaren jarraipen egokia egitea, sozietatearen arrisku nagusienetan arreta jartzen duela ziurtatuz.
- f) Urtero auditoretzaren barne-unitatearen funtzionamendua ebaluatzea, baita arduradunaren funtzioak gauzatzeko modua ere, eta horretarako, zuzendaritza exekutiboak izan dezakeen iritzia bilduko du.

Kontuen auditorearekin lotuta

- g) Administrazio-kontseiluari kontuen auditorea hautatzeko, izendatzeko, berriro hautatzeko eta ordezteko proposamenak aurkeztea, Sozietateari aplikagarri zaion araudiaren arabera hautapen-prozesuaren ardura hartuz, baita kontratatzeko baldintzena ere, eta xede horretarako, sozietate nagusian zehaztutako printzipioak eta irizpideak behatuz, Auditoretza-batzordeak ekintza hauek egin beharko ditu:

1º. auditorearen hautapen-prozedura definitzea, eta

2º. arrazoitutako proposamen bat ematea; auditorea hautatzeko gutxienez bi alternatiba izango ditu, auditore bera berriro hautatu behar den kasuetan izan ezik.

- h) Auditoretza-planari eta haren exekuzioari buruzko kontu-informazioa biltzea auditorearengandik, bere funtzioak gauzatzean independentzia gordetzeaz gain.
- i) Kontu-auditorearekin dagozkion harremanak ezartzea bere independentziarako mehatxu bat izan daitezkeen gaii buruzko informazioa jasotzeko, bereziki kontu-auditorearen eta Sozietatearen zuzendaritzaren arten sor litezkeen gatazkei buruz, Administrazio-kontseiluak azter ditzan, kontu-auditoretza goratzeko prozesuekin lotutako beste gai batzuk eta, bidezkoa denean, debekatuak ez diren zerbitzuak egiteko baimena, aplikagarri den araudian aurreikusitako baldintzetan independentzia-erregimenarekin lotuta, baita kontu-auditoretzaren legedian eta bere auditoretza-arauetan aurreikusitako beste komunikazio batzuk ere.

Edonola ere, kanpoko auditoreengandik Sozietatearekin edo harekin zuzenean edo zeharka lotutako erakundeekin duen independentziaren aitortpena jaso beharko du, baita emandako edozein zerbitzu osagarriren eta kanpoko auditoreak edo akordio honetara lotutako entitateek entitate horietatik jasotako zerbitzu-sarien informazio xehatu eta banakatua, kontu-auditoretzaren jardura arautzen duen araudiari jarraikiz.

- j) Kontu-auditoretzaren txostena jaulki baino lehen, kontu-auditorearen independentzia arriskuan ote dagoen adierazten duen txosten bat ematea urtero. Txosten horrek, edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren emandako zerbitzu osagarri guztien arrazoitutako balorazio bat izan beharko du, banaka edo osorik aztertuta, lege-auditoretzatik desberdina eta independentzia-erregimenarekin lotuta edo kontu-auditoretzaren jarduera arautzen duen araudiari jarraikiz.
- k) Auditorearen jarduerari buruzko azken ebaluazioa egitea eta auditoretzaren kalitatean eta finantza-informazioaren osotasunean nola lagundu duen adieraziz.

Beste funtzio batzuk:

- l) Aldez aurretik, Legean eta Sozietatearen estatutuetan eta Kontseiluaren araudian aurreikusitako gai guztiei buruz, eta, bereziki, helburu berezia duten edo zerga-paradisutzat jotako herrialdeetan edo lurraldeetan helbideratutako entitateak sortu edo horien partaidetzak erosteari buruz, informatzea Administrazio-kontseilua.
 - m) Sozietateak edo sozietate nagusiak edo interes-gatazkak dituzten Taldeko beste sozietate batzuk egindako eragiketetan araudia betetzen dela gainbegiratzea, Araudi honen 29. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta, bereziki, aldez aurretik, Administrazio-kontseiluari edo Batzar nagusiari eragiketa horien berri ematea, baita interes-gatazkak sortzen dituzten edo sor ditzaketen transakzioen eta, oro har, Araudi honetako VIII. Kapituluan aurreikusitako gaien berri ere.
 - n) Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeko kide izateko pertsona egokien profilak ebaluatzea, beren ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia kontuan hartuta, eta Kontseiluari Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeko kideen izendapen-proposamenak jakinaraztea.
 - o) Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeari buruzko Legean eskatutako kanpo-aditua hautatu eta izendatzea.
4. Auditoretza-batzordea bere funtzioak betetzeko behar adina aldiz bilduko da. Era berean, Auditoretza-batzordea agintariei bidali beharreko derrigorrezko finantza-informazioa berrikusteko ere bilduko da. Gai horrekin lotuta, Auditoretza-batzordeak barne-auditore bat eduki beharko du bilera horietan eta, kontu-auditorearen berrikusteko txostenen bat igortzen badu, horiek ez dira bileran egongo Auditoretza-batzordeak dagozkion erabakiak hartzeko unean. Auditoretza-batzordeak Arrisku-batzordearekin batera egin ditzake saioak, bi batzordeen intereseko gaiak tratatzeko.
 5. Auditoretza-batzordearen Presidenteak deituko du, bai bere ekimenez, bai Administrazio-kontseiluaren Presidenteak edo Auditoretza-batzordeko bi (2) kidek eskatuta. Deialdia gutun, mezu elektronikoa edo jaso dela idatzirik utzi daitekeen beste edozein bitartekoren bidez egingo da. Idazkaria arduratuko da deialdiaz eta aktak eta Auditoretza-batzordeari aurkeztutako dokumentazioa artxibatzeaz.
 6. Behar den moduan eratuta geratuko da kideen gehiengoa, presente edo ordezkatuta, biltzen direnean. Akordioak bildutako kideen gehiengoaren, presente edo ordezkatuak, arabera hartuko dira, eta akta bat egingo da saio bakoitzean hartutako akordioekin, eta horien berri emateko da Kontseiluaren osoko bilkurari. Auditoretza-batzordearen aktak Kontseiluaren kide guztien eskura egongo da Idazkaritzan.

7. Auditoretza-batzordeak zuzendaritza-taldeko edozein kide edo Sozietateko edozein langile deitu ahal izango du, Auditoretza-batzordearen Presidenteak gonbidatutako pertsoneri saioetara etortzeko eska diezaieke. Edonola ere, Auditoretza-batzordeko kideak ez diren pertsonak bilerara etortzea jorratuko den gaiarengatik justifikatuta dagoenean soilik etorriko dira eta deitu diren gai-zerrendako puntu zehatz horiek soilik tratatzeko.
8. Bere egitekoan, Auditoretza-batzordeak kontuan izango du, ahal den neurrian eta modu etengabean, Administrazio-kontseiluak hartutako neurriak ez dituela banako edo banakoen talde txiki batek menderatzen zainduko du, Sozietatearen interesak kalteztuta ikus ez daitezela.
9. Auditoretza-batzordeak noizean behingo komunikabide efektibo bat ezarri beharko du bere ohiko solaskideekin, eta normalean Auditoretza-batzordearen Presidenteari egokituko zaio eta, besteak beste, Sozietatearen zuzendaritzarekin, zehazki, finantza-zuzendaritzarekin, barne-auditoretzaren arduradunarekin eta kontu-auditoretzaren ardura duen auditore nagusiarekin hitz egin beharko du. Auditoretza-batzordearen eta kanpo-auditorearen arteko komunikazioa erraza, etengabea eta kontu-auditoretzaren jardura arautzen duen araudiaren arabera izan beharko du, eta ez du auditorearen independentzia eta auditoretza egiten duen edo auditoretza-prozedurak garatzeko eraginkortasuna arriskuan jarriko.
10. Auditoretza-batzordeak urteko lan-plan bat ezarriko du, ekitaldian zehar Auditoretza-batzordearen jardura nagusiak aurreikusiko dituen.

Era berean, ekitaldiko funtzionamenduari buruzko urteko txosten bat egingo du eta, gutxienez, informazio hau izango du: (i) Batzordearen araudia, (ii) Batzordearen osaera ekitaldian, (iii) ekitaldian izandako bilera, etorri diren barne-auditoreak eta kanpo-auditoreak eta etorri diren kopurua adierazita, baita etorri diren gonbidatuak ere, baten bat etorri gero, (iv) aldian egindako jardura nagusiak, kanpo-adituen laguntzarekin egin diren jardueren berri emanez, (v) Batzordearen funtzionamenduari eta lanaren ebaluazioa, (vi) auditorearen independentziari buruzko Batzordearen iritzari buruzko informazioa, (vii) Auditoretza-batzordeak zein gida praktikori eta zein neurritan jarraitzen dien, (viii) ondorioak, eta (ix) Batzordeak txostena egindako data eta Batzordeak onartutako data.

11. Auditoretza-batzordeak modu egokian, bidezko jotakoan eta behar adina Sozietatearen informazio edo dokumentazio atzi dezake, eta kanpo-adituen aholkularitza ere bil dezake bere funtzioak egoki betetzeko beharrezko irizten dioenean.
12. Auditoretza-batzordeak noizean behingo trebakuntza-plan bat eduki dezake, Batzordeko kideen ezagutzak eguneratuta daudela ziurtatzeko. Era berean, ongietorri-programa bat emango zaie kide berriei.
13. Sozietateak behar adina baliabide eskaini beharko dizkio Auditoretza-batzordeari, bere funtzioak betetzeko. Baliabideen beharrak Administrazio-kontseiluaren Idazkariaren bidez bideratuko dira.
14. Aurreikusi ez denean, Auditoretza-batzordeak xedatzen duenari jarraituko zaio, eta modu osagarri gisa eta xedapen horren izaerak eta funtzioek ahalbidetzen duten moduan, Sozietatearen estatutuetan eta Araudi honetan Administrazio-kontseiluari buruz zehaztutako funtzionamendu-arauak aplikatuko dira.

IV. ATALA ARRISKU-BATZORDEA

9. ARTIKULUA.- OSAERA, FUNTZIOAK ETA FUNTZIONAMENDUA

1. Arrisku-batzordea Kontseilari ez-exekutiboz osatuta dago, Administrazio-kontseiluak erabakitako kopuruan, gutxienez hiru (3) eta gehienez (5) kide. Arrisku-batzordeko kideen gehiengoa independentea izango da, eta arrisku-estrategia eta Sozietatearen arriskurako joera erabat ulertzeko eta kontrolatzeko beharrezko ezagutzak, gaitasuna eta esperientzia izan beharko ditu.
2. Arrisku-batzordeak bere Kontseilari independenteen artean izendatuko du Presidentea. Arrisku-batzordearen Presidenteak bozeramaile gisa jardungo du Administrazio-kontseiluaren bileretan, eta hala balegokio, Sozietatearen akziodunen Batzar nagusiaren bileretan ere. Era berean, Idazkari bat izendatuko du, eta Idazkariorde bat ere izenda dezake, eta biek ez dute zertan kide izan behar. Izendapen horiek egiten ez badira, Kontseilukoek beteko dituzte kargu horiek.
3. Administrazio-kontseiluak une oro esleai dakizkiokeen beste edozein egitekori kalterik egin gabe, Arrisku-batzordeak oinarrizko funtzio hauek gauzatuko ditu:
 - a) Administrazio-kontseilua aholkatzea Sozietatearen arriskurako, egungo eta etorkizuneko, joera orokorrari eta arlo horretako strategiari buruz, arrisku-nahiari buruzko informazioa emanez, estrategia hori aplikatzeko zaintzan lagunduz, aurrez erabakitako arriskuaren onarpen-mailarekin koherenteak diren Taldearen ekintzak zaintzea eta hartutako arriskuak ezarritako profilera egokitzeko mailaren jarraipena eginez.
 - b) Arriskuen kudeaketaren eta kontrolarekin lotuta:
 - i. Arriskuen kudeaketa-sistemen eraginkortasuna gainbegiratzea. Hala balegokio, gomendioak edo proposamenak aurkez diezazkioke Administrazio-kontseiluari eta jarraipena egiteko dagokion epea.
 - ii. Gutxienez urtero, arriskuen zerrenda, finantzarioak eta ez-finantzarioak, garrantzitsuenak berriro ebaluatu eta onarpen-maila baloratzea; Kontseiluari doitzeko era proposa diezaioke.
 - iii. Gutxienez urtero, negozio-unitateen goi-arduradunekin bilera bat egitea, negozio-joerak eta lotutako arriskuak azal ditzaten, eta Sozietatearen arrisku-profila nabarmen aldatzen denean.
 - c) Administrazio-kontseiluari Sozietateari eragiten dioten arrisku-politikak definitzen eta ebaluatzen laguntzea, zehazki hau identifikatu beharko dute:
 - i. Sozietateak aurre egin beharreko arrisku motak (operatiboak, teknologikoak, finantzarioak, legalak eta ospari buruzkoak, besteak beste); finantzarioen edo ekonomikoen artean, besteak beste pasibo kontingenteak eta saldotik kanpoko beste batzuk barne.
 - ii. Aipatu arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko informazioaren eta kontrolaren barne-sistemak.
 - iii. Sozietateak onargarria irizten dio arrisku-maila ezartzea.
 - iv. Identifikatutako arriskuen inpaktua arintzeko aurreikusitako neurriak, gauzatzea iritsiz gero.

- d) Administrazio-kontseiluari laguntzea ematea, Sozietatearen arrisku-estrategia eta ezarritako dagozkion mugak aplikatzearen zaintza gainbegiratzeko.
- e) Kapitala eta likidezia kudeatzeko estrategiak gauzatzen direla zaintzea, baita erakunde bateko gainerako arrisku garrantzitsuak ere, adibidez, merkatuari, kredituari, eragiketari (teknologikoak barne), osperei eta legeei buruzkoak, estrategiara eta onartutako arrisku-nahira egokitzen dela ebaluatzeko.
- f) Bezeroei eskainitako aktiboen eta pasiboen prezio-politikak enpresaren eredua eta Sozietatearen arrisku-estrategia kontuan hartzen dituela zaintzea. Bestela, Arrisku-batzordeak konpontzeko plan bat aurkeztea Administrazio-kontseiluari.
- g) Ingurune makroekonomikotik eta Sozietatearen jarduerak kokatzen diren ziklo ekonomikoetatik eratorritako arriskuak ezagutzea eta baloratzea. Bezero nagusiei, jarduerako sektore ekonomikoei, eskualde geografikoei eta arrisku motari buruzko espezioa berrikustea tarteka.
- h) Administrazio-kontseiluarekin batera, Administrazio-kontseiluak jaso beharreko informazioaren izaera, kantitatea, formatua eta maiztasuna erabakitzea, baita Arrisku-batzorde batek jaso beharrekoa ere. Zehazki, Arrisku-batzordeak arrisku-funtzioaren arduradun gorenaren informazioa jasoko du tarteka.
- i) Arriskuen funtzioaren eraginkortasuna gainbegiratzeko, eta bereziki:
 - i. Arriskuen funtzioaren independentzia eta eraginkortasuna zaintzea.
 - ii. Arriskuen funtzioak bere lana egiteko beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak dituela zaintzea.
 - iii. Bere jardueri buruzko informazioa jasotzea tarteka; besteak beste, hautemandako balizko hutsuneak eta ezarritako arrisku-mugak ez betetzea.
 - iv. Arrisku-funtzioak eta arrisku-funtzioaren arduradunaren lana ebaluatzea urtero.
- j) Lege- eta jokabide-arriskua baloratzea, legezko edo araudizko zigorren arriskuaren, Sozietateak legeak, arauak, arautze-estandarrak eta jokabide-kodeak ez betetzearen ondorioz izan dezakeen galera finantzarioaren, galera materialaren edo osperearen galera gisa ulertuta, ez betetzeko edozein arrisku detektatuta eta, bere jarraipena eginez eta balizko hutsuneak deontologia-printzipioekin aztertuta.
- k) Izendapenen, ordainsarien eta jasagarritasunaren batzordearekin lankidetzan aritzea, arrazoizko ordainsariaren politikak eta praktikak ezartzeko. Xede horietarako, Arrisku-batzordeak, Izendapenen, ordainsarien eta jasagarritasunaren batzordearen funtzioei kalterik egin gabe, ordainsari-politiketan aurreikusitako pizgarrien politikak arriskua, kapitala, likidezia eta probabilitatea eta onuren aukera kontuan hartzen baditu.
- l) Produktu eta zerbitzu berriei edo lehendik diren produktu eta zerbitzu garrantzitsuenetan izandako aldaketa nabarmenei buruzko informazioa ematea, puntu hauek erabaki eta horiei buruzko informazioa emateko:

- i. Sozietateak aurre egin beharreko arriskuak elementu horiek jaulkitzean edo merkatuetan merkaturatzean, baita lehendik direnetan aldaketa handiak egitean sortutakoak ere.
 - ii. Arrisku horiek kudeatzeko eta kontrolatzeko informazioaren eta kontrolaren barne-sistemak.
 - iii. Identifikatutako arriskuen inpaktua mugatzeko neurri zuzentzaileak, gauzatzera iritsiz gero.
 - iv. Merkaturatzeko bitarteko eta kanal egokiak, ospearean eta merkaturatze-akastunaren arriskuak txikitzeko helburuz.
- m) Balizko egoera sorta bat aztertzea, estres-egoerak barne, Sozietatearen arrisku-profilak kanpoko eta barneko gertakarien aurrean nola erreakzionatuko lukeen ebaluatzeko, horien emaitzak baloratu eta emaitza horien ondorio gisa arrisku-funtzioak proposatutako neurriak aztertuz.
 - n) Sozietatearen baitan aurkitutako balizko garrantziaren irregulartasunen berri ematea ahalbidetzen duen salaketa-kanalaren funtzionamendu gainbegiratzea; batez ere finantzekin eta kontabilitatearekin lotutakoak.
 - o) Gainbegiratzaileriei eta arautzaileriei buruzko laguntza eta aholkuak ematea Administrazio-kontseiluari.
 - p) Arau-proposamenei eta aplikatzen diren arau berriei jarraitzea.
 - q) Arrisku- eta betetze-funtzioen arduradun gorenak izendatzeko edo kargugabetzeko proposamenetan parte hartzea, baita horien egitekoaren helburuak balioztatuz ere.
4. Arrisku-batzordea bere funtzioak betetzeko behar adina aldiz bilduko da. Era berean, Arrisku-batzordeak Auditoretza-batzordearekin batera egin ditzake saioak, bi batzordeen intereseko gaiak tratatzeko.
 5. Arrisku-batzordearen Presidenteak deituko du, bai bere ekimenez, bai Administrazio-kontseiluaren Presidenteak edo Arrisku-batzordeko bi (2) kidek eskatuta. Deialdia gutun, mezu elektronikoa edo jaso dela idatzirik utzi daitekeen beste edozein bitartekoren bidez egingo da. Idazkaria arduratuko da deialdiaz eta aktak eta Arrisku-batzordeari aurkeztutako dokumentazioa artxibatzeaz.
 6. Behar den moduan eratuta geratuko da kideen gehiengoa, presente edo ordezkaturak, biltzen direnean. Akordioak bildutako kideen gehiengoaren, presente edo ordezkaturak, arabera hartuko dira, eta akta bat egingo da saio bakoitzean hartutako akordioekin, eta horien berri emateko da Kontseiluaren osoko bilkurari. Arrisku-batzordearen aktak Kontseiluaren kide guztien eskura egongo da Idazkaritzan.
 7. Arrisku-batzordeak zuzendaritza-taldeko edozein kide edo Sozietateko edozein langile deitu ahal izango du, Arrisku-batzordearen Presidenteak gonbidatutako pertsonen saioetara etortzeko eska diezaieke. Edonola ere, Arrisku-batzordeko kideak ez diren pertsonak bilerara etortzea jorratuko den gaiarengatik justifikatuta dagoenean soilik etorriko dira eta deitu diren gai-zerrendako puntu zehatz horiek soilik tratatzeko.

8. Bere egitekoan, Arrisku-batzordeak kontuan izango du, ahal den neurrian eta modu etengabean, Administrazio-kontseiluak hartutako neurriak ez dituela banako edo banakoen talde txiki batek menderatzen zainduko du, Sozietatearen interesak kaltetuta ikus ez daitezzen.
9. Arrisku-batzordeak urteko lan-plan bat ezarriko du, ekitaldian zehar Arrisku-batzordearen jarduera nagusiak aurreikusiko dituena.
10. Arrisku-batzordeak modu egokian, bidezko jotakoan eta behar adina Sozietatearen informazio edo dokumentazio atzi dezake, eta kanpo-adituen aholkularitza ere bil dezake bere funtzioak egoki betetzeko beharrezko irizten dioenean.
11. Arrisku-batzordeak noizean behingo trebakuntza-plan bat eduki dezake, Batzordeko kideen ezagutzak eguneratuta daudela ziurtatzeko. Era berean, ongietorri-programa bat emango zaie kide berriei.
12. Sozietateak behar adina baliabide eskaini beharko dizkio Arrisku-batzordeari, bere funtzioak betetzeko. Baliabideen beharrak Administrazio-kontseiluaren Idazkariaren bidez bideratuko dira.
13. Aurreikusi ez denean, Arrisku-batzordeak xedatzen duenari jarraituko zaio, eta modu osagarri gisa eta xedapen horren izaerak eta funtzioek ahalbidetzen duten moduan, Sozietatearen estatutuetan eta Araudi honetan Administrazio-kontseiluari buruz zehaztutako funtzionamendu-arauak aplikatuko dira.

V. ATALA IZENDAPENEN, ORDAINSARIEN ETA JASANGARRITASUNAREN BATZORDEA

10. ARTIKULUA.- OSAERA, FUNTZIOAK ETA FUNTZIONAMENDUA

1. Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordea Kontseilari ez-exekutiboz osatuta dago, Administrazio-kontseiluak erabakitako kopuruan, gutxienez hiru (3) eta gehienez (5) kide. Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeko kideen heren bat independentea izango da eta ahal dela, Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordearekin batera, gobernu korporatiboaren, analisiaren eta giza-eskubideen ebaluazio estrategikoaren, kontseilarien eta zuzendaritzen hautapena eta egokitasunaren ezagutzak eta esperientzia izango ditu, goi-zuzendaritzako funtzioak egingo ditu eta kontseilarien eta goi-zuzendarien ordainsari-planak egingo ditu.
2. Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeak bere Kontseilari independenteen artean izendatuko du Presidenteak. Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordearen Presidenteak bozeramaile gisa jardungo du Administrazio-kontseiluaren bileretan, eta hala balegokio, Sozietatearen akziodunen Batzar nagusiaren bileretan ere. Era berean, Idazkari bat izendatuko du, eta Idazkariorde bat ere izenda dezake, eta biek ez dute zertan kide izan behar. Izendapen horiek egiten ez badira, Kontseilukoek beteko dituzte kargu horiek.
3. Administrazio-kontseiluak une oro esleia dakizkiokeen beste edozein egitegori kalterik egin gabe, Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeak oinarrizko funtzio hauek gauzatuko ditu:
 - a) Administrazio-kontseiluari Administrazio-kontseiluko kideek eta Sozietateko langile nagusiek behar dituzten eskumenen, ezagutzen eta esperientziaren ebaluazioa ebaluatzea eta proposatzea.

- b) Administrazio-kontseiluari Kontseilari independenteak izendatzeko proposamenak egitea kideen artean izendatzeko edo Akziodunen batzar nagusian erabakitzeke, baita Kontseilari horiek berriro hautatzeko edo bereizteke proposatzeko Akziodunen batzar nagusiari eta gainerako Kontseilariak izendatzeko, berriro hautatzeko edo bereizteke proposamenen berri emateke. Era berean, dagokion Kontseiluari espezializatutako Batzordeko kideak izendatzeko proposamenak aurkeztuko dizkio.
- c) Sozietateko kontseilari bakoitzaren gainerako lanak aztertzea, Kontseiluari eskaini beharreko denbora kontuan izanda, eta bereziki kontseilariak zentzuz parte har dezakeen gehieneko kontseiluen kopurua, kontseilariak behar adina pasatzen dutela zainduz, edo bestela, neurri egokiak.
- d) Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordea ez den beste Komisio bateko kide izateko pertsona egokien profila ebaluatzea, beren ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia kontuan hartuta, eta Kontseiluari Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordea ez den beste Komisio bateko kideen izendapen-proposamenak jakinaraztea.
- e) Goi-zuzendarien izendapenen edo bereizteke proposamenen berri ematea, proposamen horiek zuzenean egin daitezke goi-zuzendaritzako kideen kasuan, bai kontroleko funtzioengatik, bai Kontseiluari edo Batzordeei emandako babesgatik, Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeak ekimen hori hartu behar duela irizten dionean. Bidezkoa ikusiz gero, goi-zuzendaritzako kideen kontratuetan oinarritako baldintzak proposatzea, eta baldintzak ezartzen direnean, horien berri ematea.
- f) Kontseiluko Idazkariaren eta Idazkariordearen izendapenen eta, hala dagokionean, kargugabetzearen berri ematea, Administrazio-kontseiluak onar dezan.
- g) Administrazio-kontseiluaren egitura, osaera eta jarduna tarteka ebaluatzea, eta gomendioak egitea, balizko aldaketei dagokionez.
- h) Administrazio-kontseiluko hainbat kideren egokitasuna tarteka ebaluatzea, eta Administrazio-kontseiluari horren berri ematea.
- i) Kontseilarien, zuzendari orokoren edo Kontseiluaren edo Kontseilari delegatuen mendeko zuzendaritza goreneko funtzioak garatzen dituzten ordainsariei buruzko erabakiak prestatzea, baita banako ordainsaria eta Kontseilari exekutiboaren gainerako kontratuzko baldintzak, eta horiek zaintzea.
- j) Sozietatearen ordainsarien politika orokorraren berri eman eta prestatzea.
- k) Akziodunen batzar nagusiak bozkatu behar duen ordainsariei buruzko txostenak edo erabakiak Kontseiluari proposatzea hark onar ditzan, baita Batzar orokorrari proposatuko zaion ordainsariarekin lotutako proposamenen berri ematea Kontseiluari.

- l) Ordainsari-sistemak arrisku, likidezia-maila eta kapital mota guztiak kontuan hartzen direla, ordainsari-politika orokorra sustatzen dela eta arrisku-kudeaketa egoki eta eraginkor batekin koherentea dela eta negozio-estrategiarekin, helburuekin, kulturarekin eta balio korporatiboekin eta entitatearen epe luzerako interesekin bat datorrela bermatzeko hartutako mekanismoak eta sistemak ebaluatzea.
 - m) Emaitzen helburuak lortu diren eta arriskuen ex post doikuntzen beharra ebaluatzea, ordainsaria txikitzeko eta jada ordaindutako ordainsariak berreskuratzeko klausulak aplikatzea barne.
 - n) Administrazio-kontseiluari Sozietatearen gobernu-sistema korporatiboari eta barne-gobernuari buruzko aholkuak ematea, baita Sozietatearen gobernu-sistema korporatibo egokiaren ebaluazioaren berri ematea ere tarteka.
 - o) Sozietatearen ingurumenari eta gizarteari buruzko politikak eta arauak betetzen direla gainbegiratzea, tarteka ebaluatu eta gainbegiratuta, interes soziala bultzatzeko misioa betetzeko eta gainerako interes-taldeen interes legitimoak, dagokion moduan, kontuan izatea, baita gai hori buruz egoki iritzitako proposamenak Kontseiluari aurkeztea eta, hala balegokio, jasangarritasunari/erantzukizun korporatiboaren politika bat onartzeko aurkeztea ere.
 - p) Ardura duten arloek bidalitako jasangarritasunari buruzko txostenak jasotzea eta ebaluatzea tarteka, arlo horretako berrikuntza nagusiei eta aurrerabideei buruzko informazio eguneratua emanez.
 - q) Sozietateko Presidenteak, Kontseiluko kideek, zuzendaritzako kideek edo akziodunek egindako iradokizunak kontuan hartzea.
4. Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordea bere funtzioak betetzeko behar adina aldiz bilduko da.
 5. Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordearen Presidenteak deituko du, bai bere ekimenez, bai Administrazio-kontseiluaren Presidenteak edo Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeko bi (2) kidek eskatuta. Deialdia gutun, mezu elektronikoa edo jaso dela idatzirik utzi daitekeen beste edozein bitartekoren bidez egingo da. Idazkaria arduratuko da deialdiaz eta aktak eta Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeari aurkeztutako dokumentazioa artxibatzeaz.
 6. Behar den moduan eratuta geratuko da kideen gehiengoa, presente edo ordezkatuta, biltzen direnean. Akordioak bildutako kideen gehiengoaren, presente edo ordezkatuak, arabera hartuko dira, eta akta bat egingo da saio bakoitzean hartutako akordioekin, eta horien berri emateko da Kontseiluaren osoko bilkurari. Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordearen aktak Kontseiluko kide guztien eskura izango dira Idazkaritzan, baina ez dira bidaliko edo entregatuko arrazoi pribatuengatik, Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordearen Presidenteak kontrakoa agintzen duenean izan ezik.
 7. Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeak zuzendaritza-taldeko edozein kide edo Sozietateko edozein langile deitu ahal izango du, Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordearen Presidenteak gonbidatutako pertsonari saioetara etortzeko eska diezaieke. Edonola ere, Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeko kideak ez diren pertsonak bilerara etortzea jorratuko den gaiarengatik justifikatuta dagoenean soilik etorriko dira eta deitu diren gai-zerrendako puntu zehatz horiek soilik tratatzeko.

8. Bere egitekoan, Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeak kontuan izango du, ahal den neurrian eta modu etengabea, Administrazio-kontseiluak hartutako neurriak ez dituela banako edo banakoen talde txiki batek menderatzen zainduko du, Sozietatearen interesak kaltetuta ikus ez daitezzen. Era berean, ordainsariei buruzko erabakiak prestatzean, Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeak kontuan izango ditu akziodunen, inbertsiogileen eta Sozietatean interesa duten beste alderdi batzuen epe luzerako interesak, baita interes publikoa ere.
9. Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeak urteko lan-plan bat ezarriko du, ekitaldian zehar Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordearen jardura nagusiak aurreikusiko dituena.
10. Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeak modu egokian, bidezko jotakoan eta behar adina Sozietatearen informazio edo dokumentazio atzi dezake, eta kanpo-adituen aholkularitza ere bil dezake bere funtzioak egoki betetzeko beharrezko irizten dioenean.
11. Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeak noizean behingo trebakuntza-plan bat eduki dezake, Batzordeko kideen ezagutzak eguneratuta daudela ziurtatzeko. Era berean, ongietorri-programa bat emango zaie kide berriei.
12. Sozietateak behar adina baliabide eskaini beharko dizkio Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeari, bere funtzioak betetzeko. Baliabideen beharrak Administrazio-kontseiluaren Idazkariaren bidez bideratuko dira.
13. Aurreikusi ez denean, Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren batzordeak xedatzen duenari jarraituko zaio, eta modu osagarri gisa eta xedapen horren izaerak eta funtzioek ahalbidetzen duten moduan, Sozietatearen estatutuetan eta Araudi honetan Administrazio-kontseiluari buruz zehaztutako funtzionamendu-arauak aplikatuko dira.

VI. ATALA BERRIKUNTZAREN, TEKNOLOGIKOAREN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN BATZORDEA

11. ARTIKULUA.- OSAERA, FUNTZIOAK ETA FUNTZIONAMENDUA

1. Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordea Kontseilariz osatuta dago, Administrazio-kontseiluak erabakitako kopuruan, gutxienez hiru (3) eta gehienez (6) kide.
2. Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordeak bere baitan izendatuko du Presidentea. Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordearen Presidenteak bozeramaile gisa jardungo du Administrazio-kontseiluaren bileretan, eta hala balegokio, Sozietatearen akziodunen Batzar nagusiaren bileretan ere. Era berean, Idazkari bat izendatuko du, eta Idazkariorde bat ere izenda dezake, eta biek ez dute zertan kide izan behar. Izendapen horiek egiten ez badira, Kontseilukoek beteko dituzte kargu horiek.
3. Administrazio-kontseiluak une oro esleidi dakizkiokeen beste edozein egitekori kalterik egin gabe, Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordeak oinarrizko funtzio hauek gauzatu ditu:

- a) Administrazio-kontseiluari berrikuntza teknologikoaren arloko aurrerapen eta joera eta ekimen nagusiak identifikatzen, haien jarraipena egiten eta aztertzen laguntzea; adibidez, adimen artifizialaren, datuen analisiaren, blockchain teknologiaren edo biometriaren arloan, berrikuntza jakin batzuen arraskaren faktoreak eta bere eraldaketa-gaitasuna aztertuta.
 - b) Administrazio-kontseiluari eraldaketa digitalarekin eta berrikuntza teknologikoarekin (estrategia digitala) lotutako alderdien plan estrategikoa ezartzeko aholkuak ematea, bereziki, Sozietateak arlo horretan diseinatutako planen eta proiektuen eta negozio-eredu, produktu, bezeroarekin harremanetan jartzeko moduen edo garatzen diren beste edozein alderdiren berri emateko.
 - c) Administrazio-kontseiluari garapen teknologikoetatik eratorritako negozio-aukera berriak, eta balizko mehatxuak, identifikatzen lagunduko dion hausnarketa-esparru bat ahalbidetzea.
 - d) Merkatuaren egitura, finantza-zerbitzuak ematerakoan eta bezeroen jokabidean berrikuntza teknologikoak duen inpaktuaren analisia egiten laguntzea Administrazio-kontseiluari. Beste elementu batzuen artean, Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren komisiok teknologia berrien gaitasun disruptiboak aztertuko ditu, haren garapenak dituen balizko arauzko ondorioak, zibersegurtasunari eta datuen pribatutasunarekin eta erabilerarekin lotutako gaiei buruzko ondorioak.
 - e) Teknologia berriak kontsumoaren finantzazioari eta ordainketa-zerbitzuen/-bitartekoen negozioan teknologia berriak aplikatzetik eratorritako ondorio etikoei eta sozialei buruzko hausnarketa eta eztabaida bultzatzea.
 - f) Arrisku-batzordeari laguntzea, bidezko ikusten duenean, arrisku teknologikoak eta zibersegurtasunarekin lotutako alderdiak gainbegiratzean.
4. Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordea bere funtzioak betetzeko behar adina aldiz bilduko da.
 5. Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordearen Presidenteak deituko du, bai bere ekimenez, bai Administrazio-kontseiluaren Presidenteak edo Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordeko bi (2) kidek eskatuta. Deialdia gutun, mezu elektronikoa edo jaso dela idatzirik utzi daitekeen beste edozein bitartekoren bidez egingo da. Idazkaria arduratuko da deialdiaz eta aktak eta Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordeari aurkeztutako dokumentazioa artxibatzeaz.
 6. Behar den moduan eratuta geratuko da kideen gehiengoa, presente edo ordezkaturik, biltzen direnean. Akordioak bildutako kideen gehiengoaren, presente edo ordezkaturik, arabera hartuko dira, eta akta bat egingo da saio bakoitzean hartutako akordioekin, eta horien berri emateko da Kontseiluaren osoko bilkurari. Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordearen aktak Kontseiluaren kide guztien eskura egongo da idazkaritzan.
 7. Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordeak zuzendaritza-taldeko edozein kide edo Sozietateko edozein langile deitu ahal izango du, Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordearen Presidenteak gonbidatutako pertsonen saioetara etortzeko eska diezaieke. Edonola ere, Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordeko kideak ez diren pertsonak bilerara etortzea jorratuko den gaiarengatik justifikatuta dagoenean soilik etorriko dira eta deitu diren gaitzerrendako puntu zehatz horiek soilik tratatzeko.

8. Bere egitekoan, Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordeak kontuan izango du, ahal den neurrian eta modu etengabea, Administrazio-kontseiluak hartutako neurriak ez dituela banako edo banakoen talde txiki batek menderatzen zainduko du, Sozietatearen interesak kaltetuta ikus ez daitezela.
9. Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordeak urteko lan-plan bat ezarriko du, ekitaldian zehar Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordearen jarduera nagusiak aurreikusiko dituen.
10. Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordeak modu egokian, bidezko jotakoan eta behar adina Sozietatearen informazio edo dokumentazio atzi dezake, eta kanpo-adituen aholkularitza ere bil dezake bere funtzioak egoki betetzeko beharrezko irizten dioenean.
11. Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordeak noizean behingo trebakuntza-plan bat eduki dezake, Batzordeko kideen ezagutzak eguneratuta daudela ziurtatzeko. Era berean, ongietorri-programa bat emango zaie kide berriei.
12. Sozietateak behar adina baliabide eskaini beharko dizkio Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordeari, bere funtzioak betetzeko. Baliabideen beharrak Administrazio-kontseiluaren Idazkariaren bidez bideratuko dira.
13. Aurreikusi ez denean, Berrikuntzaren, teknologiaren eta eraldaketa digitalaren batzordeak xedatzen duenari jarraituko zaio, eta modu osagarri gisa eta xedapen horren izaerak eta funtzioek ahalbidetzen duten moduan, Sozietatearen estatutuetan eta Araudi honetan Administrazio-kontseiluari buruz zehaztutako funtzionamendu-arauak aplikatuko dira.

IV. KAPITULUA

KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA

12. ARTIKULUA.- ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN BILERAK

1. Administrazio-kontseilua Sozietateak ongi funtzionatzeko egoki irizten dion adina aldiz bilduko da, eta gutxienez bilera bat egin behar du hiruhilekoan. Administrazio-kontseilua gutxienez bi (2) kidek, Presidenteari gai-zerrenda adieraziz idatzita, eskatzen zaionean ere bilduko da, Administrazio-kontseiluaren bilera Presidenteak aginduta deituko da, Kontseilari bakoitzari pertsonalki zuzendutako edozein idatziren bidez, eta hurrengo atalean zehaztutako baldintzetan, eskaera egin eta hurrengo hamabost (15) egunetan biltzeko, sozietatearen helbidea dagoen udalerrian.
2. Saioren deialdia gutun, mezu elektronikoko edo jaso dela idatzi geratzen den beste edozein bitartekoren bidez egingo zaio Kontseilari bakoitzari, eta Presidentearen sinadurarekin baimenduta egongo da edo, hala balegokio, Idazkariaren edo Idazkariordearen sinadurarekin, Presidenteak hala aginduta. Deialdia gutxienez berrogeita zortzi (48) ordu lehenago egingo da, Kontseiluak presazko arrazoiak daudela irizten dionean izan ezik.
3. Administrazio-kontseilua osatu gabe dagoenean edo, salbuespen gisa, presazko arrazoiengatik deitu denean izan ezik, Kontseilariak alde aurretik eta behar adinako denborarekin tratatuko diren gaiari buruz hausnartu eta akordioetara iristeko beharrezko informazioa jaso beharko dute, eta Kontseiluaren Presidenteak, Idazkariaren laguntzarekin, xedapen hori betetzen dela zaindu beharko du.

4. Administrazio-kontseiluaren eta bere Batzordeen bilerak, normalean, sozietatearen egoitzan egingo dira, baina Kontseiluaren edo deitu duen Batzordearen Presidenteak zehaztutako beste leku batean ere egin daiteke. Kontseiluaren edo dagokion Batzordearen Presidenteak bilera aldi berean toki desberdinetan baina ikus-entzunezko edo telefono bidezko bitartekoen bidez konektatuta egiteko baimena eman dezake, partaideak ezagutzeko eta elkarreragiteko aukera eta denbora errealean jarduteko aukera, eta beraz, ekintza bateratua izatea, ziurtatzen bada. Kasu horretan, gutxienez Kontseilari bat sozietatearen egoitzan badago, saioa sozietatean egin dela ulertuko da. Kontseilaririk ez badago, Kontseilari burua dagoen tokian egin dela ulertuko da. Kasu horretan, urruneko komunikabideak erabiltzen dituzten Kontseilariak partaidetzat joko dira ondorio guztietarako, eta bozketan parte hartu ahal izango dute erabilitako komunikabidearen bidez.
5. Kontseilua baliozko moduan eratu dela ulertuko da, deialdirik egin gabe, bertaratutako zein ordezkaturako kide guztiek aho batez saioa egitea eta gai-zerrendako puntu guztiak onartzen badituzte.
6. Era berean, akordioak idatziz eta saiorik egin gabe hartu ahal izango du indarrean den legean eta Sozietatearen estatutuetan zehaztutakoari jarraikiz, Kontseiluko kide guztiak prozedurarekin ados badaude.

13. ARTIKULUA.- SAIOPEN GARAPENA

1. Kontseilua baliozko moduan eratuko da bere kideen gehiengoa, bertaratuta edo ordezkaturata, biltzen direnean, deialdirik ez dagoenean izan ezik, kasu horretan kide guztiak bildu beharko dira, bertaratuta edo ordezkaturata.
2. Kontseilariak aurrez aurre joan beharko dute Kontseiluaren saioetara. Alabaina, aurrez aurre joan ezin dutenean, bere ordezkari itzaz eta izaera bereziarekin ematen saiatuko dira saio bakoitzerako Kontseiluko beste kide bati, baita dagozkion argibideak ere.
3. Presidenteak eztabaida Kontseilari guztiek parte hartzen dutela eta hori bultzatuz egingo du organoaren hausnarketetan eta bozketak zuzenduko ditu.
4. Legeek edo Estatutuek berariaz beste bozketa quorum batzuk zehazten dituzten kasuetan izan ezik, akordioak bileran bildu diren Kontseilarien gehiengoarekin, aurrez aurre edo ordezkaturata, erdiesten dira. Bozketan berdinketaren bat egonez gero, Presidentearen botoa ebaslea izango da.
5. Administrazio-kontseiluaren saioetatik Idazkariak akta jasoko du, eta gutxienez Presidenteak edo Presidenteordeak eta Idazkariak edo Idazkariordeak sinatuko dute, eta akten liburuan transkribatu edo bilduko dira, aplikagarri den araudiaren arabera.
6. Aktak Administrazio-kontseiluak berak onartuko ditu, bileraren amaieran edo amaitu eta berehala, bileren berehalakotasunak hori egiteko aukera eskaintzen ez duenean izan ezik; kasu horretan, hurrengo saio batean onartuko da. Aktak Presidenteak, Idazkariak eta akta dagokion Kontseiluaren bilerara joandako bi (2) Kontseilarik ere onartu ahal izango ditu, Kontseiluak berak saio bakoitzean izendatu baditu.

Akordioak exekutatzeari errazteko eta, hala balegokio, publikoari erakusteko, aktak zati batean onar daitezke, onartutako zati bakoitzean, akordio bat edo gehiago bilduz.

V. KAPITULUA

KONTSEILARIAK IZENDATZEA EDO

KARGUGABETZEA

14. ARTIKULUA.- KONTSEILARIEN IZENDAPENA

1. Kontseilariak Batzar nagusiak edo Administrazio-kontseiluak izendatuko ditu, Legean edo Sozietatearen Estatutuetan zehaztutako xedapenei jarraikiz.
2. Administrazio-kontseiluko kideek bere karguak gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak bete beharko dituzte. Zehazki, aitortutako ohore komertzial eta profesionala, bere funtzioak gauzatzeko ezagutzak, eskumenak eta esperientzia egokiak eta Sozietatearen gobernu ona gauzatzeko jarrera izan beharko dituzte, indarrean den araudian xedatzen den baldintzetan.
3. Edonola ere, Administrazio-kontseiluak bere kideen hautapen-prozedurek esperientzien eta ezagutzen aniztasuna ahalbidetzen dutela, kontseilari emakumeen hautapena errazten dutela eta, oro har, inolako bereizketarik ekartzen ez duen ñabardura impliziturik ez dutela zaindu beharko du, Kontseiluan aniztasuna bultzatzen duen politika bat ezarriz.
4. Kontseilariak exekutibo edo ez-exekutibo gisa izendatuko dira, eta horien artean, jabarizko, independente edo kanpoko beste batzuren moduan bereiziko dira, indarrean den araudian xedatzen den moduan. Kontseilariaren izara Administrazio-kontseiluak zehaztuko du Batzar nagusiaren aurrean, eta hark bere izendapena egin edo berretsi beharko du edo hura berriro hautzea adostu beharko du, Izendapenen, ordainsarien eta jasagarritasunaren batzordearen txostenean oinarrituta.

15. ARTIKULUA.- KARGUAREN IRAUPENA

1. Kontseilariak Estatutuetan aurreikusitako epean beteko dute bere kargua, Batzar nagusiak kargugabetzea edo eurek karguari uko egiten ez badiote, eta berriro hautatu daitezke, behin edo hainbat aldiz iraupen bereko aldietan. Alabaina, Kontseilari independenteak ezin izango dute hamabi (12) urte baino gehiagoko aldi jarraituetan Kontseilari izan.
2. Kooptazio bidez izendatutako Kontseilariak akziodunen artetik izendatuko dira eta lehen Batzar nagusia bildu arte gauzatuko dute bere kargua.

16. ARTIKULUA.- KONTSEILARIAK KARGUGABETZEA

1. Kontseilariak kargua utziko dute izendatu ziren aldia amaitzen denean, Batzar nagusiak, legez edo estatutuz emandako esleipenak erabiltzean, hala erabakitzen duenean eta karguari uko egiten dienean.
2. Kontseilariak Administrazio-kontseiluaren esku jarri beharko dute eta, hark egoki iritziz gero, dagokion dimisioa gauzatu beharko du kasu hauetan:
 - (a) Bere Kontseilari izendapena lotutako postuak, karguak edo funtzio exekutiboak uzten dituztenean;

- (b) legez aurreikusitako bateraezintasun edo debeku-egoera batean daudenean edo indarrean den araudiak eskatutako egokitasun-eskakizunak biltzeari uzten diotenean;
- (c) ustez delitua den ekintza batengatik prozesatzen direnean edo agintari gainbegiratzailleek aginduta hutsegite larri edo oso larri batengatik espediente bat ireki dietenean;
- (d) egoera profesionalean aldaketa handiak gertatzen direnean edo Kontseilari izendatu zenean zituen baldintzetan; eta
- (e) Kontseilariari egotz dakizkiokeen ekintzengatik Kontseiluan jarraitzeak bere ustez kalte larri bat sortzen duenean ondarean edo gizartean duen ospean.

VI. KAPITULUA

KONTSEILARIAREN INFORMAZIOA

17. ARTIKULUA.- INFORMATZEKO ETA IKERTZEKO GAITASUNAK

1. Bere funtzioak gauzatzean, Kontseilariak bere betebeharrak betetzeko balioko dion informazioa eskatzeko betebeharra eta Sozietatek informazio hori jasotzeko eskubidea ditu. Horretarako, Kontseilariak Sozietatearen edozein alderdiri buruzko informazioa eskatu eta bere liburuak, erregistroak, dokumentuak eta gainerako dokumentazioa aztertu beharko ditu.
2. Informazio-eskaera Administrazio-kontseiluaren Presidenteari egin beharko zaio eta hark Sozietateko dagokion solaskideari jakinaraziko dio.
3. Presidentearen iritziz informazioa konfidentziala bada, Presidenteak hori jakinaraziko dio informazioa eskatu eta jaso duen Kontseilariari, baita konfidentziasuna gordetzeko duen beharra ere, Araudi honetan aurreikusten denari jarraikiz.

18. ARTIKULUA.- ADITUEN LAGUNTZA

1. Bere funtzioan gauzatzean laguntza jasotzeko, Kontseilari ez-exekutiboek aholkulari legalak, finantzarioak edo beste aditu batzuk kontrata ditzake Sozietatearen kargura. Enkarguak kargua gauzatzeko nolabaiteko garrantzia edo konplexutasuna duten arazo zehatzei buruz egin beharko da.
2. Kontratatzeko erabakia Sozietatearen Presidenteari jakinarazi behar zaio, eta Administrazio-kontseiluak betoa jar diezaioke, honako hau ziurtatuz gero:
 - (a) Kontseilari ez-exekutiboek esleitutako funtzioak ongi gauzatzeko ez dela beharrezkoa;
 - (b) bere kostua ez dela arrazoizkoa arazoaren garrantzia eta Sozietatearen aktiboak eta sarrerak kontuan hartuta;
 - (c) jasotzen laguntza teknikoa Sozietateko adituek eta teknikariak egoki eman dezakete; edo
 - (d) arrisku bat izan daitekeela kudeatu behar den informazioaren kudeagarritasunerako.

VII. KAPITULUA

KONTSEILARIEN ORDAINSARIA

19. ARTIKULUA.- KONTSEILARIEN IZENDAPENA

1. Administrazio-kontseiluak Kontseilari bakoitzari dagokion ordain-saria zehaztuko du Administrazio-kontseiluko eta bere Komisioetako kide izateagatik eta, hala balegokio, funtzio delegatuak edo exekutiboak gauzateagatik, estatutuko xedapenak eta Batzar nagusiak onartutako ordainsari-politika aintzat hartuta eta, hala balegokio, Izendapenen, ordainsarien eta jasangarritasunaren komisioaren adierazpenei jarraikiz. Batzar nagusiak onartutako kontseilari guztien urteko ordainsarien gehieneko zenbatekoak Administrazio-kontseiluko edo bere komisioetako kide izatearen ordainsaria eta Kontseilariak, edozein tituluri jarraikiz, Sozietatean funtzio delegatu edo exekutiboengatik esleituta dituzten ordainsariak barne izango ditu.
2. Kontseilarien ordainsariak arrazoizko proportzioa gorde beharko du Sozietatean duen garrantziarekin, une oro Sozietateak duen egoera ekonomikoarekin eta enpresa konparagarrien merkatuko estandarrekin. Ezarritako ordainsari-sistemak Sistemaren errentagarritasuna eta epe luzerako jasangarritasuna bultzatzera bideratuta egon behar du, eta arrisku gehiegi ez hartzeko eta kontrako emaitzen sariak ez lortzeko beharrezko arreta-neurriak izan beharko ditu.
3. Zehazki, Administrazio-kontseiluak eskura dituen neurri guztiak hartuko ditu Kontseilariak jasotzen duten ordainsaria, baita Batzordeetako kide gisa jasotzen dutena ere, zuzentarau hauetara egokitzen dela:
 - (a) Kontseilaria eskaintako arduraren arabera eta esleitu zaizkion funtzioen eta erantzukizunen arabera saritu behar da; eta
 - (b) Administrazio-kontseiluko eta bere Batzordeetako kide izateagatik Kontseilariak jasotako ordainsariaren zenbatekoa bere jardunagatik pizgarriak eskaintzeko moduko izan behar da, baina bere independentzia mantentzeko oztopoa izan gabe.
4. Administrazio-kontseiluak funtzio delegatuak edo exekutiboak betetzen dituzten Kontseilarien ordainsaria zehaztuko du, baita bere kontratuen zehaztapenak eta baldintzak ere, araudiaren, Estatutuen eta indarrean den ordainsarien politikaren arabera.

VIII. KAPITULUA

KONTSEILARIAREN EGINBEHARRAK

20. ARTIKULUA.- KONTSEILARIEN EGINBEHARRAK BETETZEAREN DISPENSA

Berariaz debekatuta ez dagoen kasuetan, Sozietateak betebeharrak jakin batzuk betetzea dispensa diezaioke Kontseilariari. Dispensa Batzordearen eskumena ez denean, dispensa Administrazio-kontseiluak soilik onar dezake, aldez aurretik eta salbuespen gisa, eta Auditoretza-batzordeak kasu bakoitzean aplikagarri diren lege-arauak edo estatutu-arauak ez-betetzeak Sozietateari inongo kalterik sortuko ez diola dioen txosten bat eginda.

21. ARTIKULUA.- KONTSEILARIEN BETEBEHAR OROKORRAK

Bere funtzioak egitean, Kontseilariak enpresari ordenatu baten prestutasunarekin jardungo du eta ordezkari fidel baten leialtasunarekin. Bere jarduerak asmo onekoa izan beharko du eta sozietatearen interesengatik soilik gidatuko da, defentsarik onena eta akziodunen interesen babesa zainduz, haiek agintzen dutelako eta haien aurrean erantzun behar dutelako.

22 ARTIKULUA.- ARRETAZ JOKATZEKO BETEBEHARRA

Kontseilariak kargua eta Legeak eta Sozietatearen estatutuek ezarritako betebeharrak bete behar dituzte enpresari ordenatu baten prestutasunarekin, karguaren izaera eta kargu bakoitzari esleitu zaizkion funtzioak kontuan hartuta, bere interesa enpresaren interesaren mende jarrita. Bereziki, Kontseilariak betebehar hauek izango ditu:

- (a) dedikazio egokia izatea eta Sozietatearen zuzendaritza eta kontrol on bat lortzeko beharrezko neurriak hartzea;
- (b) Sozietateari informazio egokia eta beharrezkoa eskatzea eta jasotzea bere betebeharrak betetzeko eta, zehazki Kontseiluaren bilerak egoki prestatzeko eta, hala balegokio, kide den organo delegatuen eta barne-batzordeen bilerak;
- (c) Administrazio-kontseiluaren bileretara joatea eta modu aktiboan parte hartzea deliberazioetan, bere irizpideak erabakiak hartzeko unean lagun dezan. Arrazoi justifikatu batengatik, deitutako saioetara joan ezin bada, ordezkatu behar duen Kontseilariari jakinarazi beharko dio Araudi honetan zehaztutako baldintzen arabera;
- (d) bere ikuspegi estrategikoaren ekarpena egitea, baita bere kontzeptu, irizpide eta neurri berritzaileena ere Sozietatearen negozioa modu optimoan garatu eta eraldatzeko;
- (e) Administrazio-kontseiluak edo bere edozein organo delegatuk eta/edo kontsultarako organok eskatutako egiteko espezifikoko gauzatzea eta bere arduraldiaren konpromisoan sartzen bada;
- (f) Sozietatearen kudeaketan ezagutu duen edozein irregulartasun ikertzea eta edozein arrisku-egoera zaintzea;
- (g) deialdiak egiteko gaitasuna duten pertsonen Kontseiluaren aparteko bilera bat dei dezaten edo egingo den lehen bileraren gai-zerrendan egoki iritzitako muturrak gehi ditzaten agintzea;
- (h) Legearen, Estatutuen kontrako akordioen, Araudi honen edo sozietatearen interesaren aurka egitea, eta bere jarrera aktan jasota gera dadin eskatzea sozietatearen interesa zaintzeko egokiagoa dela iritzitakoan.

23 ARTIKULUA.- LEIALTASUNEZ JOKATZEKO BETEBEHARRA

Kontseilariak ordezkari fidel baten leialtasunarekin jardungo du, asmo onez eta Sozietatearen interes hobean lan eginez. Zehazki, Kontseilariak, leialtasunez jokatzeko betebeharra betez:

- (a) ez du Kontseilariak edo Kontseilariari lotutako pertsonak, zuzenean edo zeharka, interes-gatazkak dituzten gaiei eragiten dieten deliberazioetan eta bozketetan parte hartu behar, gatazkak eragina duen eta abstenitu behar diren Kontseilarien botoak ez dira kontatuko behar den botoen gehiengoa kontatzerakoan;

- (b) bere kargua betetzean atzitutako informazioen, datuen, txostenen edo aurrekarien sekretua gordetzea, baita kargua utzi eta gero ere, Legeak onartzen edo eskatzen duen kasuetan izan ezik, Araudi honetako 27. artikuluan xedatzen diren baldintzetan.
- (c) bere eskumenak esleitu zaizkion xedeetarako soilik erabiltzea ; eta
- (d) bere funtzioak erantzukizun pertsonalaren printzipioaren arabera gauzatzea, irizpide- edo epai-askatasunarekin eta hirugarrenen aginduak eta loturak kontuan hartu gabe; eta
- (e) bere interesak, bere konturakoak edo besteen konturakoak, sozietatearen interesarekin eta Sozietatearekin dituen betebeharrekin gatazkan sar litezkeen egoeretan sar ez daitezzen beharrezko neurriak hartzea.

24. ARTIKULUA.- KONTSEILARIAREN KONFIDENTZIALTASUNEZ JOKATZEKO BETEBEHARRA

1. Kontseilariak Administrazio-kontseiluaren eta kide den organo delegatuen deliberazioen sekretua gordeko du eta, oro har, ez du jakinaraziko bere kargua betetzean atzitutako informaziorik.
2. Konfidentzialtasun-betebeharrak kargua utzi eta gero ere jarraituko du, eta izaera konfidentziala duten informazioen eta bere kargua betetzearen ondorioz ezagututako informazioen, datuen, txostenen edo aurrekarien sekretua gorde beharko da, eta ezin izango dira hirugarrenei jakinarazi edo ezin izango dira dibulgatu sozietatearen intereserako ondorio kaltegarriak izan baditzake. Paragrafo honetan aipatzen diren betebeharretik salbuesten dira Legeak hirugarrenei jakinarazteko edo dibulgatzeko baimena ematen duen egoera edo, gainbegiratze-agintariak eskatzen dituztenak edo bidali behar direnak, eta kasu horretan, informazioaren lagapena Legean xedatzen dena egokitu beharko da.

25 ARTIKULUA.- LEHIA EZ EGITEAREN BETEBEHARRA

1. Kontseilariak ez du, bere kontura edo besteren kontura, Sozietaterako lehia efektiboa, benetakoa edo balizkoa, den ekintzarik egingo, edo edonola, Sozietatearen interesekin etengabe gatazka batean jartzen badute, Sozietateak, berariazko akordio baten bidez eta Batzorde nagusitik bereizita, baimena ematen duen kasuetan izan ezik, eta kasu horretan, hurrengo artikuluko 3. atalean xedatzen den komunikazioa egin beharko da. Sozietatearekin ez lehiatzeko betebeharra Sozietateari kalterik egiten ez dion kasuan edo espero den kaltea dispentsarekin lortzea aurreikusten diren onurek konpentsatzen dutenean soilik dispentsatu ahal izango da. Filialetan edo Sozietatearen partaidetzako erakundeetan betetako karguak salbuetsita geratzen dira. Debeku hori ezin zaie aplikatu sozietate nagusian edo bere taldeko beste entitate batzuetan kargu exekutiboak edo administrazioako karguak betetzen dituzten pertsoneri.
2. Batzar nagusiaren dispentsa lortu duen Kontseilariari aplikatu ahal izango zaio, dispentsa-akordioak barne dituen baldintzak eta bermeak betetzeko betebeharra eta, nola ez, interes-gatazkek diren deliberazioetan eta bozketetan parte ez hartzeko betebeharra; eta hori guztia indarrean den araudian xedatzen denari jarraikiz.
3. Bere agintea amaitu edo edozein arrazoiengatik kargua uzten duen Kontseilariak ezin izango du zerbitzurik eman ezta Sozietatearekin lehia efektiboko egoeran dagoen beste erakunde bateko administratzaile izan ere zehazten den epean, eta gehienez ere bi (2) urtez.

26. ARTIKULUA.- INTERES-GATAZKAK SAIHESTEKO BETEBEHARRA

1. Sozietatearen eta Kontseilariaren edo bere lotutako pertsonen artean interes-gatazka sor dezaketen egoerak saihestu behar ditu Kontseilariak, horretarako behar diren neurriak hartuta. Edonola ere, Kontseilariak ez ditu ekintza hauek egin behar:
 - a) Sozietatearekin transakzioak, zuzenean edo zeharka, ohiko eragiketak direnean izan ezik, baldintza estandarretan eginak bezero guztientzat eta garrantzia gutxikoak, hau da ondarearen, finantza-erakundearen eta Sozietatearen emaitzen irudi fidelak emateko beharrezkoa ez den informazioa;
 - b) Sozietatearen izena erabili, edo bere Kontseilari baldintza erabili eragiketa pribatuak egitean bidegabeki eragina izateko;
 - c) Sozietatearen aktiboak erabili, Sozietatearen informazio konfidentziala barne, eta Sozietatean duen posizioaz baliatzea ondarezko abantaila bat lortzeko edo beste edozein helburu pribatu lortzeko;
 - d) Sozietatearen negozio-aukerez aprobetxatu; negozio-aukera Kontseilariak bere karguarekin lotuta sortu den edo ezagutu den, edo Sozietatearen bitartekoak edo informazioa erabiliz, edo hirugarrenaren eskaintza egiaz Sozietateari zuzenduta zegoela pentsatzeko egoera batean, inbertsio bat edo eragiketa komertziala bat egiteko aukera gisa ulertu behar da;
 - e) Sozietatea eta bere karguarekin lotutako taldea ez diren hirugarrenen abantailak edo ordainsariak lortzea, kortesia hutseko arretak direnean izan ezik; eta
 - f) moduren batean Sozietatearen interesekin etengabe gatazkan jartzen duten jarduerak garatzea, bere kontura edo besteren kontura.
2. Aurreikuspen horiek ere aplikatuko dira ekintzen edo debekatutako jardueren onuraduna Kontseilariarekin lotutako pertsona bat denean, Legeak kontzeptu hori definitzen duen moduan (aurrerantzean, **Lotutako pertsonak**).
3. Edonola ere, Kontseilariak eurek edo Lotutako pertsonak Sozietatearen interesekin izan ditzaketen, zuzeneko edo zeharkako, gatazka-egoeren berri eman beharko dio Administrazio-kontseiluari jakinarazi beharko diete.
4. Sozietateak indarrean den araudian zehaztutako prozeduren eta murrizketen araberako kasu berezietan soilik dispentsa ditzake artikulua honetako debekuak.
5. Kontseilariak dauden interes-gatazkaren egoerak informatzeko xede izango dira txostenean.

27. ARTIKULUA.- INFORMAZIO EZ-PUBLIKOA ERABILTZEA

Kontseilariak bere karguarekin lotutako arretaz, fideltasunez, konfidentziasunez eta sekretuz jarduteko betebeharren mende daude, Sozietatearen informazio ez-publikoaren erabilerari dagokionez, eta ezingo dute informazio hori bere edo hirugarrenen onurarako erabiliz aipatutako betebeharrak hautsiz.

28. ARTIKULUA.- KONTSEILARIAREN INFORMAZIO-BETEBEHARRAK

1. Kontseilariak beste sozietate batzuetan betetzen dituen karguen eta betetzen dituen jardueren berri eman beharko dio Sozietateari eta, oro har, Sozietateko administratzaile gisa bere jarduerarako garrantzitsuak izan daitezkeen ekintzen, ezaugarrien edo egoeren berri.
2. Kontseilariak, bere garrantziagatik, Sozietatearen ospean eragin larria izan dezaketen egoeraren bat ezagutuz gero haren berri eman beharko diote Sozietateari.
3. Kontseilariak kontuan izan beharko dituzte kreditu-erakundeen antolaketari, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruz indarrean den araudiak Administrazio-kontseilueta kide izateari buruz ezarritako mugak.
4. Kontseilariak Sozietatean eragina duten eta bere kredituari edo ospeari kalte egin diezaioketen egoeren berri eman beharko dio, bereziki, inputatu gisa agertzen diren kausa penalez eta gorabehera prozesal garrantzitsuez. Egoera aztertu eta gero, Kontseiluak dimisioa emateko eska diezaioke Kontseilariari, eta Kontseilariak erabaki horri men egin beharko dio.

IX. KAPITULUA

TALDE BARRUKO ERAGIKETAK

29. ARTIKULUA.- TALDE BARRUKO ERAGIKETAK

1. Auditoretza-batzordeak aurrez txostena egin ostean, Sozietateak sozietate nagusiarekin edo Taldeko beste sozietate batzuekin interes-gatazkak eduki ditzaketen egindako eragiketak onartuko ditu Administrazio-kontseiluak, legez eskumen hori legez Akziodunen batzar nagusiari dagokion kasuetan izan ezik. Aplikagarri den araudiari jarraikiz, lotuta dauden eta sozietate nagusia ordeztzen duten administratzaileen partaidetzarekin onartu ahal izango da, eta administratzaileen erabakia edo botoa erabakigarria izango balitz onartzeko, Sozietateari dagokio eta, hala balegokio, interes-gatazkak eragina duten administratzaileei, akordioa sozietatearen interesaren arabera dela frogatzea, aurkaratuz gero, eta beharrezko arreta eta leialtasuna erabili zirela, erantzukizuna eskatuz gero.
2. Administrazio-kontseiluak organo delegatuen edo goi-zuzendaritzako kideen esku utz ditzake Sozietateak sozietate nagusiarekin edo Taldeko beste sozietate batzuekin egin ditzan, enpresaren ohiko jardunean egindako eragiketak badira, besteak beste akordio bat edo esparru-kontratu bat exekutatuta sortzen direnean, eta merkatuaren baldintzetan erabakitzen direnak. Eskuordetutako eragiketa horiek onartzeko ez da beharrezkoa izango Auditoretza-batzordeak aurrez txostena egitea, nahiz eta Administrazio-kontseiluak tarteka informatzeko eta kontrolatzeko barne-prozedura bat ezarriko duen Auditoretza-batzordearen esku hartzearekin.
3. Xede horietarako, ez dira interes-gatazka bat duen Taldeko sozietate batekin egindako eragiketatzat joko bere mendeko sozietateekin egindako eragiketa horiek, mendeko sozietatearen akziodun garrantzitsu bat Sozietateak, lotutako alderdien erregimena aplikatu gabe, eragiketarik egin ezin duen pertsona bat denean izan ezik.

4. Era berean, ez dira interes-gatazken mendeko eragiketa gisa hartuko eta, beraz, ez da artikulua honen erregimenik aplikatuko, Sozietateak bere sozietate nagusiarekin egiten dituen eragiketak, sozietatea osorik partaidetzakoa bada.
